

**SANTA AGEDA KOPLÉN
GERRA AURREKO TXAPELKETAK**

Santa Ageda bezperako eske-ibilera noiztikoa ote?

Ohitura zaharra da baserririk baserri eske-koplak kantatzea santa Ageda bezperan. Ohitura horri “santa eskean ibiltzea” esan ohi zaio Gipuzkoa gehienez eta are Bizkaiko eguzkialde edo sortaldean ere. Bizkaiko barrualdean beste izen batzuk ere ematen dizkiote usadio horri, “santa Ageda batzea”, “santa Ageda kantatzea” eta abar.

Baserririk baserri ibiltzea zen garai bateko ohitura zaharra. Baserririk baserriko eske-ibilerak bakandu diren neurrian, kalez kaleko ibilera berriagoak indartu dira. Egiazko koplari-beretsolariak ere urritu diren neurrian, koplak ikasi txapel askoak kantatzen dituzten halamoduzko kantariak ugaritu dira. Ohituraren zabalkunde honetan badira era guztietako talde edo aldrak ere: ume zein emakume-aldrak, gazte zein sasoiko-enak. Are euskara ez dakitenak ere ikusi ditut talde handian harro asko begi aurrean paper zimurtu bateko koplak txapel-ustelak ahoskatu ezinik. Bilbo bezalako hiri handietan santa eskean ibiltzeko ohitura gerra aurretik ere zabaldua zen, garai hartako egunkariak salatzen dutenez. Talde hauek koplak kopuru urri eta buruz ikasia erabiltzen zuten, leku askotan kantatu ahal izateko. Arrazoia begi bistakoa da, zenbat eta leku gehiagotan kantatu, hainbat eta dirualde handiagoa biltzeko

modua zuten. Ohiturak, bistakoa denez, menditik kale aldera, eta herri euskaldunetatik hiri handietara zabaldu den neurrian bere jatorrizko sena galdu du.

Santa Ageda bezperan kantatzen ziren koplak zaharrak dira. Alerik zaharrenak hiru-lau mende baino gehiago duten koplakerreskadak osatzen dituzte. Erdi Aroko kutsua dutenez gero, garai hartantsu sortuak direla dioten ikertzaileak badira. Erdi Aroko kutsuko koplakerreskada hauek, zoritxarrez gutxi kantatzen dira gaur eguneko kalez kaleko eske-ibilietan.

Kopla zaharren lehen testigantzak eta bildumak

Santa Ageda eskeko koplak zaharren historialarien testigantza zaharrik ez dugu. Guk dakigula, eske-kopla hauen ohituraren berri ematen digun lehen historialaria Juan Antonio Zamakola dugu. Arratiar honek bere *Historia de las naciones bascas* laneko hirugarren liburukian honelaxe dio: “La víspera de Santa Agueda, abogada de los pechos, en que van los mozos de los lugares á deshoras de la noche á felicitar á las mujeres, las cuales les regalan huevos, longanizas, chorizos, etc, es donde se observan con más calor estas disputas”. Testigantza hau hemeretzigarren mendekoa da, eta garai hartarako ere, santa Ageda eskean ibiltzeko ohitura zaharra zen.

Hemeretzigarren mendean egindako koplakerreskaden bilduma gutxi ditugu. Bi koplakerreskada on bakarrik ezagutzen ditugu XIX. mendean bilduak, bata Lopez Arbulok Durangaldean bildua, eta bestea, Azkuek Bilbo ondoan dagoen Etxebarri herrian bildua. Julien Vinsonek bere *Folk-lore du Pays Basque* liburuan, XIX. mendekoan, eske-kopla hauen aipamena egin arren, ezer gutxi bildu zuen, Sara herriko koplak bat edo beste. Badira, zorionez, XIX. mendeko paper zaharretan aurkitu diren eske-koplak XX. mende bukaeran argitaratuak. Kopla hauen berri, oster, beste artikululu batean emango dugu.

Santa Agedako kopla zaharren zein gainerako eske-koplen lehen bilketa sistematikoak berandu samarrekoak dira, zoritxarrez. Lehen kopla-erreskaden bilketak duela laurogei urtekoak dira, 1920ko hamarkadakoak. Bilketa hauek on Jose Migel Barandiaranen *Anuario de la sociedad de Eusko Folklore* aldizkarian 1921. urteaz gerokoak dira eta biltzaileak herrian herrikoak izan ohi dira, gehientsuenetan. Aita Donostiren (Jose Gonzalo de Zulaika Arregi) bilketa *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian, 1918. urtean, "Apuntes del folklore vasco. Canciones de cuestión. Olentzero" kontuan hartzeko da. Azkueren *Cancionero popular vasco* delakoaren "Canciones de ronda" kantutegiko XI. alekoak ere 1923 ingurukoak dira. Badira lehenagokoak ere, zorionez. Edward Spencer Dodgson (1857-1922) euskalari ingelesak harri bitxi eta preziatu bezala publikatu zituen Zuberoako Larraine herriko "albadak" hogeigarren mende hasieran, 1906an. Publikazioa bertso-paperaren tankerakoa izan zen, frantses itzulpen eta guzti: *Larraineko albadak: Aubades de Larraun. Biarritz, 1906*. Lan hauezaz gainera han-hor-hemengo egunkari zein aldizkari sakabanatuetan ere agertzen dira eske-kopla bildumak. Iturririk oparoena, ordea, gerra aurreko *Euzkadi* egunkari abertzalea dugu. Kirikiño zein Lauaxeta ondo asko ohartu ziren kopla zaharrek duten garrantziaz, eta herrian herriko biltzaileak kopla zaharrak biltzera gonbidatu zituzten. Behin uzta polita bilduz gero, koplen gaineko iruzkin polit askoak ere egin zituzten.

Kopla zaharren lehen ikerketak

Kopla zaharren gaineko lehen ikerketak hamar urte geroagokoak izango dira, 1930ko hamarkadan. Gerra aurreko Euskal Herrian, jaun argitu batzuk, olerkariak zein ikertzaileak, herri-poesiaren balio apartaz jabetu ziren. Herri poesia diogunean, tradiziozkoaz zein ez tradiziozkoaz ari gara, bat-bateko bertso zein tradiziozko kopla zaharren balio tekniko eta poeti-

koaz. Herri-poesiarik finena, herri poesiaren gaina eta bikaina batez ere kopla-zaharretan aurkitu zuten jaun jakintsu eta edertzale hauek. Orduko jaun argitu hauek, *Euskal Pizkunde* edo Errenazimentuko aurrendari eta bultzatzaileak, garai hartako *cognoscenti* direlakoak, kopla-zaharren ikertzaile aitzindariak izan ziren. Ikertzaileen artean hiru izen aipatuz gero, Odon Apraiz, Manuel Lekuona eta Jose Ariztimuño “Aitzol” aipatuko genituzke. Ikertzaile hauek guztiak kopla zaharretan agertzen diren bi alderdi arras desberdinen arteko haustura eta lotura aztertzen saiatu ziren. Bi alderdi hauek, Jose Ariztimuñoren arabera, “irudia”, eta “oldozkuna” edo pentsamendua ziren. Orduko olerkaririk finenak, Lauaxetak, Lizardik eta Orixek, kopla zaharren tankerara eratutako olerkiak ere idatzi zituzten. Hona hemen, esaterako, Lauaxetak dioena 1933ko *Euzkadi* 6593 zenbakian, Urtarrilaren 23an: “*Agate deunaren aurregunetan garan ezkerro, geure bertsolarijak egin dautsezan bertso zarrak argitara gura geunkez. An-emen dabiltzan batzuk batuko doguz. Olerk(ar)i-antzo gabiltzan batzuk ikusi ta ikasi biarko doguz geure erriak sortarazi dauzan “kopla” zoragarrixok.*

Itz gitxittan mamiña dauke ugari. Bertsolari zarrak ezagutzen eben euren izkuntza, itzez ezik tankeraz. Atsegingarrijen yakuzan bertsuak or yuatzubez”¹.

Aitormen labur honetan hainbat gauza ikusi ditzakegu. Olerkari landuentzat duen garrantzia kopla zoragarriak direlako. Uste dugu erratu txiki bat dagoela eta *Olerki-antzo* delakoa “Olerkari-antzo” jarri dugu. Era horretara, zentzua du hurrengo esaldi honek: *Olerkari-antzo gabiltzan batzuk ikusi ta*

¹ “Agate deuna eta bertsolarijak” (*Euzkadi* 1933, 6593 zenbakia) Lauaxetak idatzi zuen bezalaxe jarri dut. Egin dudana aldaketa bakarra garai hartako “erre gangardunak” eta “t gangardunak” gaurko erara ekartzea izan da. Guk gaur egun erabiliko ez genituzkeen hitzetan ere agertzen dira “olerki” “biarko” eta abarretan. Hitz batean erratu edo okerra aurkitu dut “galbitzan” adizkian, eta *gabiltzan* jarri dugu.

ikasi biarko doguz geure erriak sortarazi dauzan "kopla" zoragarrixok. Koplak zoragarriak dira trinkoak direlako, eta trinkotasunean herriak duen sen-poetikoa erakusten du bete-betean kopletan. Trinkotasuna "mamiñ" hitzean adierazten du, sen poetikoa "tankera" hitzean: *Itz gutxitan mamiña dauke ugari. Bertsolari zarrak ezagutzen eben euren izkuntza, itzez ezik tankeraz.*

Orixek bere *Euskaldunak* poeman kopla zaharrak txertatu zituen, eta, oker ez bagaude, berak ere sortu zituen kopla zaharren tankerako ale eder askoak. Orixek bere sorkarietan ezezik, kazetari-lanetan ere egin zuen Nafarroako san Juanetako kopla-zaharren gorantza eta erdal itzulpena ere. Lizardiri dagokionez, hil aurreko azken produkzio poetikoan kopla zaharren egitura duen olerkia aurki daiteke. Olerkari handi hauek nola ikusten zituzten kopla zaharrak eta nola txertatu zuten koplen muina edo teknika beren lanetan, orrialde hauetan aztertzeke baino mami handiagoa dutenez, utzi dezagun hurrengo baterako.

Kopla zaharren lehen sariketak, baldintzak eta saridunak

Gerra aurreko *Euskal Pizkundean* kopla zaharren urregorri balioaz konturatu zirela garai hartako olerkari zein aztertzaile aurreratuenak esan dugu gorago. Lehenengo kopla-bilduma gehientxoena garai hartakoxeak dira, eta bildumen ondoko azterketak ere bai. Garai hartakoak dira, era berean, lehen kopla zahar sariketak ere. Sariketaren deialdia "Agate deunerako olerki-txapelketa" izenez *Euzkadi* egunkarian agertu zen birritan, 1933ko urtarrilaren 12an eta 18an. Sariketak bi lekutan antolatu ziren: Tolosan eta Ondarroan. Tolosako sariketaren antolatzailea herri bereko *Euzko-Gaztedia* izan zen. Sariketaren araudia gure lantxoaren atal honetara ekarriko dugu irakurlearen jakingarri. Araudiaren gaintxoan edo buruan lege zaharreko kopla bat agertzen zen: *Dios te salbe jende noblia/ gabon*

Jainkoak diela/ legiarekin kunpli dezagun/ Santa Ageda bezperan. Tolosako sariketako bigarren deialdia Uzturre idazle eza-gunaren ohar baten ondoren agertu zen. Honelaxe zioen Uzturrek: "Errez ireintziko ditun liburuak erriari eskeñi bear dizkiogu. Mordolokerira jo gabe. Auxe darabilki gogoan Tolosa'ko Euzko-Gastediak. Eta idazlari errikoyak errez sortu nayan, sariketa bat elburu onegaz egiteko asmoz, "Olerki txapelketa, eratu du". Agate deun egunerako olerki-txapelketa.

Ona Olerki-gai errexa: "Agate deun bezpera". Olerkari errikoyak pijo tajutu lezaketen gaya. Gai errexa. Erriari atsegin zayona. // Egia gaurkoan, "Santa Ageda" bezperari buruz, olerkiak baditugu erruz, baño erriak, muxin: gaurkotasunik ez ba-dute. Gaurkotasunez ornitu eta erriak buru-belarri jasoko ditu. Ez baztertzeko. Beroyekin pozteko. Irakurtzeko Euzko-al-dunak euzkelduntzeagori buruz, ez noski bide txarrena, antziñako oiturak lengo muñez, gaurko jantziz herritzea Tolosa'ko Euzko-Gastediak asmo duna- olerki txapelketa bide. // ¡Olerkariak! ¡Zuek zerate eskuko jaso begi onez Tolosa'ko Euzko-Gastedia"ren deya. ¡Olerkariak! Aberriak deskaitzue".

Garai hartako aberrigintzan Tolosako abertzaleek eratu zuten txapelketa, eta deialdia egunkari abertzale baten bidez egin zen. Bigarren deialdiarekin batera eskabide aberkoi bat egiten zuen Uzturre Tolosakoak: *¡Olerkariak! Aberriak deskaitzue. Hau da, Olerkariak!, Aberriak eskatzen dizue. Garai hartan, itxura guztiak direnez, aberri-deia zen herri-olerkiak lantzea, nahiz ez izan olerki herrikoiak. Hona hemen deialdiaren araudia tiletez tilet, inolako aldaketarik gabe:*

- 1. Tolosa'ko Euzko-Gastediak, Aberri alde jokatu nayan olerki-sariketa au eratutzen du.*
- 2. Edozein euzkaldunek txapelketa ontan bere doai eta gaitasuna azaldu lezake, araudi au estu-estu bete ezkerro.*
- 3. Neurketan sartu nai dubenak, goyan ipiñitako olerkien era eta neurri berdiñeko 12 (amabi) "olerki berri" bidali bear dizkigu, ilbeltzaren 25'a baño lenago.*

4. *Saritutako olerkiak, T. E. G.'ko Done Agate-taldeak kalez-kale abestutzeko dira-ta, gai bidez, taldeak jasoko duben dirua, Tolosa'ko Euzkal-Ikastola eta Euzko-langillen artean erdizka banatzeko izango dala adierazten degu.*

5. *Olerkiak euzkera errez, txukun eta errikoyan nai ditugu.*

6. *Olerkariak, T. E. G'k izendatuko ditun iru epaikarien iritzira makurtu bearrean dira.*

7. *Olerkiak, izenpetu gabe (ondo oartu au), estalki (sobre) itxian, eta estaki azalean: "Olerki-txapelketa" Tolosa'ko Euzko-Gastedia, Aberri-Etxea-Tolosa, zuzenbidea dubela bidali bear dizkiguzute. Izenpetu orde, olerki bukaeran ikurritz (lema) edo izen berezi bat ipiñi zazute. Gero zuen izen-abizen eta zuzenbidea txarteltxo batean idatzi itzazute, txarteltxoa estalki batean itxi, estalki-azalean lengo ikurritza ipiñi, ta guzia lenengo estalkian estali.*

8. *Sariak: Lendabizikoa, 75 laurleko. Bigarrena, 25 laurleko.*

9. *Araudi ontan azaltzen ez diran beste mota guziko zernolako ta xetasun guziak neurtu eta erabakitzeko eskubidea bereganatuta dauka Tolosa'ko Euzko Gastediak.*

Tolosa'n 1932'gn. lotazilak 30.-Tolosa'ko Euzko-Gaztedia.

Behin deialdia egin ondoren, epaiaren berri eman zen, eta olerki sarituak argitaratu. Txapelduna Luis Jauregi poeta ezaguna, "Jaurtarkol" idatzizenez ezagunagoa, eta Emile Muxika izan ziren. Epaiaren berri urtarilaren 30ean eman zuten. Berri hauek guztiak, jakina, *Euzkadi* egunkariak zuen euskal horrian agertzen ziren. Artikuluaren izenburua, "Jauregi'tar Koldobika eta Muxika'tar Emilen jaunak txapeldun". Hona agertu zen moduan:

Ostiral gauean, epaikaritzza egin duten jaunen iritziak irakurri ondoren, Bazkintza onek erabaki auxa ontzat artu du:

"Artaga-Mendi" eta "Amabi" olerkiak, lenengo saria jaso dezatela.

"Deun Agate'ren eskaleak, berriz, bigarren saria.

"Kirru" eta "Agate" oso aipagarrik iritzi zaizkigu.

Irabazlien izen ordea zeramaten estalkiak urratuta ona nortzuen izenak agertu diran:

"Artaga-Mendi", Jauregi'tar Koldobika.

"Kirru", Loidi'tar Pben.

"Agate", Muxika'tar Emillean.

Jai-alditxo bizirot polit eta egoki baten bidez ospatu zen, Tolosa'ko Aberri-Etxea'n sari-banaketa eta olerki-irakurketa. Jai onen berri, etzi emango degu. (J. I.)

Gañerantzko ogeitaemeretzi olerki-artean, ale bikaiñik irakurri degu. Guziok ausnartu al'izan ditzazuten, izparringi ontan argitalduko ditugu esku-artean ditugun lan guziak.

Zorionak txapeldunai! Eskarrikasko gure deyari erantzun diozuten guziori. Oro bat erakunde lanetan lagun eta epaikari jadunean lanpetuta ibili zeraten aberkideei. Guziaz JEL'menpeko Euzkadi'ren azkatasun alde!

Tolosa'ko Euzko-Gaztedia.

Tolosa'ko Euzko-Gaztedijak eratutako olerki-txapelketan lehen saritua izan dan olerkia.

Egille, Muxika'tar Emillean (Amabi)

Irabazleen ohar hauen ondoren, bi olerki-sorta argitara ziren artikulu berean. Hau da Tolosako sariketaren gainean daukagun araudi eta irabazleen berri zehatza. Ondarroako olerki-txapelketaren berri handirik ez daukagu, ordea. Ez dakigu zer araudi modu izan zuten, ez baitugu inon ikusi. Badirudi, hala ere, Tolosako sariketa hartu zutela eredutzat, Ondarroan ere kopla sarituak hamabi aleko erreskadakoak baitira.

Sariketa Santa Ageda koplén balio edo literatura maila

Gaur eguneko begietatik ikusiz gero, ez dute, gure iritzi apalean, balio handirik kopla sarituak. Irabazleetariko batzu ezagunak diren arren, ez da idatzi zuten sorkaririk gailen edo goitarrena. Herri-koplén egitura zaharra ere ez dute gehiengotan erabiltzen. Ez dira kopla zaharrik ederrenetan agertzen diren bi zati bereziak agertzen. M. Lekuonak kopla zaharretan bereizten zituen irudi eta pentsamendua nekez agertzen dira ale hauetan. Kopla zaharretako (Xean edo Y) egitura errepikatu eta zaharra ez dut uste inoiz erabiltzen dutenik. Kopla zaharren tankerako alerik antzekoena irabazlearen laugarren ale hau dugu:

Gure sakelak bi zulo ditu
gaitzeruak lau lakari,
etxe ontako nagusi jaunak
ezkurra badik ugari.

Kopla zaharren erreskadak duen protokolo eta segida erakusten dute erreskada gehienak. Protokoloa diogunean, baimen eskatze eta etxekoen koplatze edo notatze jakina diogu. Kopla zaharren erreskadan baimenaren berri eman ondoren, etxeko nagusia koplatzen zen lehenik. Etxeko andrea bigarrenik. Zaldun gaztea edo maiorazkoa hirugarrenik, eta dama gaztea azkenik. Ordena protokolararioaren berri laburra eman dugu, nahiz zehaztasun asko egon daitezkeen. Zehaztasun hauek hurrengo baterako emango ditugu. Gure lantxo honetan kopla sarituak eskaini nahi dizkiogu irakurleari.

Tolosako kopla sarituak

Lehen sarituak Muxika'tar Emillean eta Jauregi'tar Koldobika izan ziren. Lehenaren ikurritza edo lema "Amabi" izan zen. Arrazoia gorago aipatutako hamabi aleko erreskadan datza. Luis Jauregiren ikurritza "Artaga-mendi" izan zen. Hona, beraz, argitara ziren bezala bi kopla-erreskadak.

Muxika'tar Emillean "Amabi"

I

Endorearen baimenarekin
gatozen abeslariak
irten gera gaur berriztutzero
euzkal-oitura garbiak.

II

Agate deunan aurreguna da
ta lagun dala pakea
gazte sail onek iriki nai du
maitasunaren atea.

III

Negu gordiñak bildurtu gabe
ara gu emen txit alai
zerbaiten poza bana deyegun
laguntza bear daudenai.

IV

Gure sakelak bi zulo ditu
gaitzeruak lau lakari,
etxe ontako nagusi jaunak
ezkurra badik ugari.

V

Osasun ona, pake ta poza
opa dizugu nagusi,
¡Ea mutillak! ezkur alerik
jaulki ote dan ikusi.

VI

Biotz aundiko etxeko-andre
jatorriz esku zabala
eska-bearrik gabe dakigu
eskupeko bat badala.

VII

Leyoan dago guri entzuten
aita-ama orren alaba
bere izatea nolakoa dan
esango degu al bada.

VIII

Udaberriko lore polita
soro zelayan bezela
edergarritzat etxe onean
ezagun dezu zaudela.

IX

Amaika gastek begiratzen du
zure gelako leyora
zuk egin arte agur alairik
ez goaz beste inora.

X

Zu bezelako gastea zala
il zuten Agate deuna
bere eriotza gogoratzeko
autu zan gaurko eguna.

XI

Gure asaben siñismen ona
gaitz-pean galdu ez dedin
Agate eran gaste garbiak
ugaldu bitez Euzkadi'n.

XII

Euzkotarrentzat erruki ona
billatu degu non dagon,
zuen emaitza ongarri zaigu
eskarrikasko ta gabon.

Lehen sariarekin sariztatuak hamabi aleko segida honek bu-
kaeran ohartxo hau zekarren: *Tolosa'ko Euzko-Gaztedia(k) era-
tutako olerki-txapelketan lenen saritua izan dan olerkia*. Lehen
sariarekin saritua, era berean, Luis Jauregiren hau zetorren:

I

Agintarien baimenarekin
Agate deune izenean
euzkal-oitura zarrai jarraituz
gatorkizu gaur eskean.

V

Zeru orretan zu baizerade
euzki lañorik gabea,
gure biotzak alaitutzera
bertan zu ager zaitea.

II

Zure aurrera, jauna, ez gakar
zu mindutzeko asmoak:
eup anaikorra, opa xamurrak
baitira gure bertsoak.

VI

Zeru paketsu ortan ez bedi
iñoiz ekaitzarik sortu:
zuen arteko poz-iturria
iñoiz ez bedi agortu.

III

Purrustaz zure biotz-atea
guri gaur itxi baño len,
etxeko leyo-zulotik beinik
begira gaitzazu, arren.

VII

Agate deunak ixuri beza
zuen gain goiko eztia,
ta irauli beza ustu-arteraño
zorionaren ontzia.

IV

Ilargi bete ta izar panpoxak
eder-zaizkigu ortzean:
zure emazte ta seme-alabak
ederrago balkoyean.

VIII

Zorion-opa pien (sic) ordañez,
eskupeko bat mesedez:
Euzkel-ikastol ta lengillentzat,
jauna, guretzat ezer ez.

XI

Artzai jatorrak maite du ziñcz
bere mendiko txabola:
euzkeldun onak maitego dute
aurren euzkel-ikastola.

X

Zuk ere Euzkera maite baidez,
emaiguzu, ba, laguntza,
Tolosa'n laister gallendu dedin
gure aitonen izkuntza.

XI

Gosc diraden langille batzuk
ba-ditugu gure etxean,
oyentzat ere eskupeko bat,
Jainkoaren izenean.

XII

Eskerrik asko, ta agur, anayak,
zuekin bedi Jainkoa:
bekizute emen pake donean,
goyan zorion osoa.

Bi kopla berri hauen sorten ondorenean Lauaxetaren ohar bat zetorren: *"Uarra-Igandez ezkenduzan argittaldu, bai-zirran eldu garaiz. Olerki txukunok irakurri dodaz eta jzelako atsegiña sartu yatan bijotzera! Txapelketara bidaldutako gustijak bidaldu egiskuzubez.//Anitz zorijon garaitza orren bidez ta aurrera jarrai dagixuben, itz anaikorrak. Horrela geure aberrija goralduko dogu.-L"*

Garai hartako garbizaletasun eta abertzaletasunaren erakusgarri hobeak dira bi segidok literatura goitarrarena baino, inolako zalantzarik gabe. Hitz garbizalez josiak daude bi sailak: abeslari, aurregun eta abar. Uste dut herri kopla zahar bakar batek edertasun handiagoa biltzen duela bere baitan bi dozena kopla hauek baino.

Tolosako txapelketako gainerako sariak

Kopla sarituak irakurleari eskeintzea da gure lantxo honetako helburu nagusia. Lehen sariaren ondorenean, bigarren saria argitara zen. Argitaratze-eguna, beraz, geroagokoa izan zen, *Euzkadi* otsailaren 2a. Bigarren saria ere Luis Jauregientzat izan zenez gero, hona hemen:

I

Eup, euzkaldunak, agur, anayak...!
Gure Tolosa argitsua...!
Arrera zintzoz entzun ta jaso
gure maitasun-oyua.

II

Maitasun-oyu, eup anaikorra
baitira gure bertsoak:
ez gakar zuen aurrera iñolaz
iñor mintzeko asmoak.

III

Aberriaren koplari gera,
Santa Agedaren eskale,
euzkel-ikastol, langille-alde
gabiltza kalerik-kale.

IV

Ziñez atsegin zaizute txori
kantarien kayola:
atsegiñago umez josirik
noski euzkel-ikastola.

V

Euzkera degu gure mintzo-ta
biotz-barneko zantzoa,
Aberriaren oñarri bizi
t'euzko-endaren gogoa.

VI

Gure umetxoen ikastola da
euzkeraren mintegia,
or sortzen dire mentu sendoak
t'euzkaldun-baso berria.

VII

Ez da euzkaldun izenaren gai
gure eskola maite ez duna:
euzko-okolaren ukatzalle da
eta sasi-euzkalduna.

VIII

Ziñez euzkaldun zeratenok, ba,
emaiguzute laguntza,
Tolosa'n laister gallendu dedin
gure aitonen izkuntza.

IX

Gure langille beartsuentzat
ere ba-gabiltz eskean,
lanik-ezaren atzapar beltza
sartu baizaigu etxean.

X

¿Beren errian gure anayei
goseak iltzen guk, ba, utzi?
Euzkotar izen garbirik ordun
ez genduke egiz merezi.

XI

Sartu sakelan eskua eta...
 eskupeko bat, mesedez;
 euzkel-ikastol ta langillentzat
 Jaunak, guretzat ezer ez.

XII

Eskarrik asko, ta agur guzioi...
 Zuekin bedi Jainkoa,
 Bekizute emen bake donez,
 goyan zorion osoa.

Azken kopla honetan *Bekizute emen yake donez* dakar, eta guk “yake” delakoa *bake* hitzarekin ordaindu dugu. Herri koplen tankera baino askoz gehiago dute kopla herrikoi edo aberkoienak. Gerra aurreko Gipuzkoako hiri handitxoenetako batean, Tolosan, erdara asko entzuten zelako gailendu nahi zen euskara.

Hirugarren sariarekin saritua, otsailaren 2an agertu zen:

I

Agate deuna biar izanik
 gatoz gu aurregunetik
 Zorion-utsak² zabaltzearren
 danoi biotz-biotzetik.

IV

Ezaguna da intxaur-azala,
 orobat sendi leyala:
 Agate deunaren eskalientzat
 ate au beti zabala.

II

Asi gerade abestietan
 arratsaldeko bostetan
 gu bezelaxe ibiltzen ziran
 beok mutil-koskorretan³.

V

Igaz joan giñan emen poztuta
 ez daukagu ez aztuta
 boltsa gaxua zimurra dago
 aboa txit zabaldua.

III

Erniyo-burun txuri elurra
 txuri Uzturren gallurra
 etxe onetan bizi diranen
 gogo txurien ikurra.

VI

Beon ganbaran saguk nai ez-ta
 simel usteltzen gaztañak
 pitarrak lagun jarri oi-ditu
 eztarri eta españak.

² Nahiz halaxe dakarren “zorion-utsak” ere izan daiteke.

³ “mutik-koskorretan” jatorrizkoan.

VII

Zaunkaz goseak estu txakurra
luzatuz bere muturra:
miliskatzeko atsegin zaigu
sayeskiaren ezurra.

VIII

Ara gilborra lertzen dubela⁴
tolare-pean kupela:
sagardogintzan, nagusi jauna,
zurea beti txapela.

IX

Nai aña gari, arto asko ta
egazti ederrez kota;
tolarean lo ardatza, baño
gogor lanean errota.

X

Saratz-adarra berez da apala,
berez luzea makala;
enbor berezi eta sendoak
sendo berezi ezpala.

XI

Nagusi jauna, etxeko-andria
sendi ederra benetan
zilar txuri bat jarri guretzat
alabaren eskuetan.

XII

Agate deunak zeru goitikan
dakus zure eskupekua,
ordañez berak emango dizu
ondasun ugaritsua.

Kopla segida honetan, gure uste apalean, olerki maila handiko aleak ikusten ditugu. Are gehiago esatera ausartuko nintzateke, lehen bi sarituen erreskadak baino hobe da hau. Saritutakoak ordea abertzaleago edo aberkoiago agertzen dira eta epaimahaiak garai hartan tasun hori gehiago puntuatu... Egile beraren (Kirru) beste sail bat argitara zuten segidan. Hona hau ere agertu bezalaxe.

I

Agate deuna Eliz-baratzan
lili eder landatuta
egizu ondo buka dezagun
gure gaur egitekoa.

II

Agate deuna ospatu eta
Oiturenak berpiztera
alkatearen baimenarekin
eskean etorri gera.

⁴ Jatorrizkoan "dube a" agertzen denez, bokalen arteko tartetxoa bete dugu *dubela* jarritz.

III

Ez gatoz bear ez danen billa
zekena uka dedilla
euzko-jatorra iriki zure
biotzeko maratilla.

IV

Euzko-langillen alkartasunak
ditu gaur estutasunak...
goseak dauzkan seme danen-
tzat
irixten ez babarrunak.

V

Ezkar txarreko arrotzak ziran
batean apal etorri;
orain dakigu zenbat dituan
landareak zenbat orri.

VI

Sota etxeko semeak eta
berak jarri dira buru
erretzen dute gure lepotik
amaika zigarro-puru.

VII

Euzko-semiak lan egin nai ta
beren etxian lanik ez,
oyen lekuan ari dalako
Gomez bat eta Rodriguez.

VIII

Ongillearen aurka alajaña
arrotzak bere mingaña;
urdeak iltzen ditugunean
odolki oyen ordaña.

IX

Bizi gaitezen anai artean
giza legezko lanean:
ari nai genduke len bezela
JEL'en azkatasunean.

X

Txerri goseak amets ezkurra
bear su ilak egurra;
gure anayak gose ta otzak
aurten bai negu makurra.

XI

Erruki zaite, Agate deuna,
izan zu bitarteko ona
alkar maiteaz iritxi zagon
Donokiko zoriona.

XII

Errukiz danok egiñik talde
gabiltza goiz arratsalde
Jauna zillar ta ordaindu arren
anai gosetuen alde.

Kopla hauek dute gizarte-kritikarik handiena. Badira kopla eztenkadatsuak aberatsen kontra eta langile kanpotarren kontra. Bego horretan neure esana, irakurle ohartuak juzka bitza. Eman dezagun Tolosako txapelketara aurkeztu zen beste segida bat. Segida hau 1933ko otsailaren 8an argitara zen. Egilea "Zapelaitza" ezizenduna.

I

Alkate jauna gaur zuregana
agur umilla egiñik,
lakemen ona eskatutzero
gatoz txapela kendurik.

II

Agate deuna ospatutzeko
ote dan eskubiderik.
Pake onean jolastutzea
ez degu beste asmorik.

III

Uso txuriyak egaran dabiltz
eleizaren inguruan,
aingerutxoak ote diraden
neri jartzen zait goguan.

IV

Etxe ontako nagusi jauna
santuen bizi moduan,
iduritzen zait arkitzen dala
aingeruakin zeruan.

V

Joles ta joles etxekotxuak
ateak jotzen ditugu.
Agate deunaren izenean
gabon opa dizutegu.

VI

Jai eder ori ospetutzeko
pozez kantari gatoz gu.
Asmo onean etorri gera
gaurkoagatik barkatu.

VII

Udaberriyan loreak dute
landa gustiya edertzen.
Orain nik ere asi nai nuke
nagusi jauna koplatzen.

VIII

Etxe onetako nagusi jauna
gizon bikain ta galanta.
Beartsuari on egiteko
esku zabala daduka.

IX

Arrokeririk batere gabe
ogiya bañon obea.
Ona dalako etxe ta auzo
guztihak dute maitea.

X

Udaberriyan sagastiyetan
loreak txuri ta gorri.
Etxe onetako zaldun gasteak
gurasoentzat pozkarri.

XI

Gurasoentzat pozkarri eta
zazpi damaren eguzki.
Biyotz gustiyaz nai dutelarik
egin berakin uztarri.

XII

Leyo batean lore tartean
izartxo bat da agiri
etxe onetako dama gasteak
emen egiten du argi.

XIII

Galai gasteak zuri begira
asko txoraturik daude⁵.
Zure eskuaz jabetzen danak
zeru erdiyan legoke.

XIV

Etxe onetako neskametxoa⁶
zintzo polit eta garbi.⁷
Bat aukeratu nai bazenduke
emen gauzkatzu amabi.

XV

Krabelintxoak bost orri ditu
larrosatxoa(k) amabi.
Etxe onetako sendi ederrak
koretegiya dirudi.

XVI

Guraso maite, kristau zintzoak
umeak azirik ongi
onbidearen usai gozoa
zabaltzen dute ugari.

XVII

Txomin kankalluk omen darama
zabal ta zakon sakua
gauz onez ongi au betetzeko
egin al balu modua.

XVIII

Nagusi jaunak bidaliko du
opari onez dirua.
Etxeko andreak emango digu
arrautz lukainka naikua.

⁵ Jatorrizkoan ez da agertzen punturik. Hurrengo koplalerroa letra larritz hasten denez gero, guk jarri dugu puntua.

⁶ "nenkametxoa" jatorrizkoan.

⁷ Aurrekoan bezala, hemen ere puntua jarri dugu.

XIX

Biotz oneko andre zabala
ama onaren alaba
goi maitasunez joaten zera zu
iñon negarrikan bada.

XXII

Oraziyo ta erretiroan
darama bizimoduba
zeru atean arki dezala
bere senar maitatuba.

XX

Baita errukiz txukatu ere
beartsuaren negarra.
Erri guztiyan ala diote
zu aingeru bat zerala.

XXIII

Agur ta agur etxekotxuak
Jaunak gabon dizutela
biotzez esker onak emanaz
orain bagoaz aurrera.

XXI

Soñeko beltzez jantzirik dabil
alargun bedeinkatuba
umil egoki erakutziyaz
Jaunaren beldur santua.

XXIV

Agate deuna jetxi dedilla
gozoro zuen artera
guzti-gustiyok eramateko
zeruko gozamenera.

Kopla erreskada hau da herri-kopla gehien biltzen dituen. Herri kopla garbiak dira hainbat. Beste zenbait herri kopla ukituak edo orraztuxeak dira. Hona zenbait adibide. V koplako *Joles ta joles etxekotxuok* herri koplako sarrera ezaguna da horren ondoan datorrena, ordea, ukituxea da. X koplako pentsamentua: *Etxe onetako zaldun gazteak/ gorasoentzat pozkarri batetik*, eta hurrengo koplako *Gurasoentzat pozkarri eta/ zazpi damaren eguzki* herri teknikaz baliatzen da, ritornello edo "bihurkiaz". Herri koplari, ordea, *soinean ditu zazpi zintzarri* da. Eta bihurkia eginez *soinean zazpi zintzarri eta/ zazpi damaren eguzki*, buruan dudari aldaeretakoa batek huts egiten ez badit. XV koplaren irudia herri-herrikoa da, pentsamendua ere herrikoa izan daiteke. Herri koplen teknika kontuan hartuko balitz, sail honek izan beharko luke saritua, nahiz hamabi koplako erreskada baino handiagoa eskaini.

Ondarroako koplak sariketaren irabazleak

Tolosako koplak sariketako araudia eta irabazleak ezagutzen ditugu. Tolosako sariketa 1933ko otsailerakoa dugu, Ondarroakoa hurrengo urtean eratu zen. Badakigu Ondarroan sariketaren antolatzailea *Euskaltzale-bazkuna* izan zela. Badirudi Ondarroakoak Tolosako txapelketa hartu zuela eredutzat honek izan zuen arrakastagatik. Uste dugu horrexegatik eratuko zela hurrengo urtean txapelketa. Badakigu araudi bera jarraituko zuten, irabazleak zein bigarren sarituak hamabi koplak inguruko erreskada aurkeztu zutelako. Zehatz izateko irabazleak hamabikoa eta bigarrenak hamabostekoa. Ondarroako koplak erreskada sarituak ere *Euzkadi* egunerokoan argitaratu ziren. Ez ditugu bidegida baizik ezagutzen *Euzkadi* 1934ko Otsailaren 3koa, 602 zenbakian lehen sarikoa, eta bigarren saria 1934ko Otsailaren 4a, 603 zenbakikoa. Irabazleak garai hartako olerkari ezagunak ziren. Lehen saria Agirre-^{tar} Eli delako batek eramane zuten. Agirre-^{tar} Eli hori Elias Agirre da, "Agarel" eta "Zegurola" idatzienez idazten zuten poeta landua. Hau poeta heldua izango zen, 1935an hil baitzen. Bigarren saritua Eusebio Erkiaga lekeitiarra izan zen. Orduan, jakina, olerkari gaztea zen 22 urte betetzeko zituen, 1912 irailaren 4an jaio baitzen. Tolosako txapelketan olerkari gipuzkoarrak irabazleak ziren bezala, Ondarroakoan, olerkari bizkaitarrak gertatu ziren txapeldun. Ez da mira egitekoa tokian tokiko olerkariak aurkeztea. Irabazleen goitizen edo idatzizienak ere badute zerbait jakingarri, Elias Agirreren "Gaukorra" zen, Eusebio Erkiagarena "Euzkel Pizkunde Zale". Zein garaitan idatziak dauden argi erakusten dute idatzizienek berek. Txapeldunaren koplak zerikusi gutxi dute gure santa Ageda koplak tradiziozkoekin. Harrigarri egiten zaigu, gainera, zenbait koplak errimarik ere ez agertzea. Lehen biak ikustea, kasurako, nahikoa da. Garai hartako hitz berri edo neologismo zein tradizio zaharreko hitz zaharren nahasketa ere harrigarria da. Guk lan honetarako ahalik eta fidelen transkribatu ditugu koplak guztiak irakurle ikasiak testu seguruak izan ditzan. Egin dugun aldaera bakarrik kontsonante gangardunak bitu edo bikoiztea izan da.

Gure ordenagailu edo makinak ezin baititu itxuratu edo idurikatu garai hartako idazkera. Hona beraz bi kopla erreskadak:

ONDARROAKO EUSKALTZALE-BAZKUNA

AGATE DEUNAREN OLERKI TXAPELKETIA

Lenengo sarijaz sarituba, Egilia Agirre'tar Eli "Gaukorra".

I

Odei-artetik ittun lurrera
begira dago illargija
mendi-gallurak ames dagije
neguko gau epeletan.

II

Beko ibarretan argi-pilluak
erle moltzuak letz zabal:
argi-ganetan egazka dabil
gauko goguen itzala.

III

Mendi-barrenan argi motela
argi galduba mendijan
lerdi barruban galduba danetz
oztiko ixarren argija.

IV

Zer dantzube neure belarrijok
oldoztijen agin ontan?
Eresi gozua urijan eta
ariago baserrijan.

V

Agate deunaren abestija
dantzugu alde bijetan,
batean axiak lagunduta
eta bestian txakurrak.

VI

Gaba ixil-ixil entzuten dago
zugatz ganetan etzanda:
gau-txorijak arkatxetan geldi
illargijari begira.

VII

Antxiñako otturea dan legez
mutil-taldiak bai-dabiltz
abestuten Agate deunari
ta gogoko neskeari.

VIII

Makilla andi banaz eskubetan
sartuten dira atadijan:
"Anderea, otoi ala abestu
dagikegu zure etxian?"

IX

"Bijotza kizkalduten dabenak
Mattasarreko olaetan
etxe onetara eldu dira
emen epeldu gurean."

X

"Ukarra emoten betorkigu
auzuotako usua
paparra baltzuriya daukana
ta laburtxuba egua."

XI

“Anitz eskar, etxe anderea
eskarrago neskati:
geurtzerako idoroko al dogu
bí-bijontzako kabija.”

XII

Urrintxo, arrubetan oyarra
zugaztijan axe epela:
bekokijan samur laztanduten
il(D)argijaren izpijak.

Kopla hauen azkenean ohartxo hau agertzen da:
“Ondarroa’ko Euzkeltzale-Bazkunak eratu eban txapelketan saritubak ixan ziran olerki oneik pozik argitaltzen doguz Agarel’enak dira. Zorijonak egiliari”. *Ozti, oldozti, ukar* hitz berriak zeru, pentsakor eta limosna adierazten dute, hurrenez hurren. *Geurtz* adberbioa A. Oihenartek eta Silvain Pauvreauk eta Joanes Etxeberrikerabili zuten tradizio zaharrean ekialdeko euskalkietan XVII mendean⁸.

ONDARROA’KO EUZKELTZALE-BAZKUNA

Bigarren sailaren buruan zehaztasun hau zetorren: *Agate Deunaren Olerki Txapelketea Bigarren sarijaz sarittutako olerkija. Erkiaga tar Eusebi.*

I

Agur ta zorijon-oparija
etxe ontako gustijei:
ludiko zorijonaren kide
eta betikuaren gei.

III

Neskutz done bat aintzaldu eta
otturak indar barritu,
orrelan asabaen lorratzai
guk jarrattuko dautsegu.

II

Etxeko jauna buru dalarik
gentzea opa dautzugu;
Agate deunaren edestija
urtero orottu oi dogu.

IV

Urte oker ta illunak zirean
aldi artan kistarrentzat;
zoritxar antzeko egun areik
zorun-ekarle guretzat.

⁸ Elias Agirre Oihenartzalea zen bere ikerketetan agertzen denez. Baditu bi lantxo Oihenarten gainean “Arnaldo de Oyénarte. Estudio biobibliográfico”, *Euzkerea*, 1934, VI, 225-229or. eta “El verbo sintético en los refranes de Oyénarte”, *Euzkerea*, 1935, (III), 604-605or.

V

Jaungoiko axunak garai artan
ziran Jaungoiko nagusi,
errijak guzur-ziñeskuntzea
on-bakartzat eban etsi.

VI

Kristo´ren jarraitzalle-artian
gendun Agate donia:
oker-ziñeskuntzaz kutsubage
ta neskutz garbi-zalia,

VII

Garbittasunaren iturri
Kisto Jaunagan ekusan.
Kintzen erri buru nagosijak
uka-erazo nai eutsan.

VIII

Agate deunak eznai ukatu
bere kistar ixaterik
espetxe illunean sartun eben
ukapena lortu nairik.

IX

Alperrik ziran etsayen lanak
neskutza orbandu nairik;
orra ba, Agate, areyo eskuz
il, bularrak ebagirik.

X

Aranetako lili gurija
baxen garbi zan Agate,
ziñopa deun onen edestija
bekigu Donoki-ate.

XI

Dizdizlari gau oskarbijetan
ortzian ixar ederrak;
alantxe, ziñez, dizdizka Agate
doniaren Goi-eskarrak.

XII

Goretsi daigun Urtzi donia
bere ziñopaen bidez,
goretsi begije erri gustijak
euren ekanduz ta elez.

XIII

Agate deunaren aldi areik
negu gogorrena iduri,
ludijan oñazez jasan eta
gero, Goyan Uda jori.

XIV

Agur, etxeko sendi jatorra,
agur, euzkotar zindduak:
mattatu beti Egille Ona
eta euzko-ekandubak.

XV

Agate deunak eskarra ixuri
begiketzube oparo,
zorunki igaro daikezubezan
urte, mende, egun eta aro.

Gerra aurreko euskara landuaren adibide egokiak dira orain arteko kopla sail guztiak. Ez da gure asmoa euskara horren azterketarik eskeintzea. Horretarako badira lan berarizkoak. Orain ia hirurogei eta hamar urte eratu zen txapelketa baten berri eman nahi izan dugu. Txapelketa hartan sarituak gertatu ziren lanak ere aldizkari honetako irakurle ohartu eta ikasiari eskaini nahi izan dizkiogu.

Xabier Kaltzakorta